

# BERTSO

P A P E R A K

## Urumeako giroa

FLORIAN OIARBIDE MARKO

**1** "Urumerreka" deitzen diogun

Ereñozuko baillara.

Gure leku au jaso nai nuke  
merezi duen maillara.

Biztanle kopurua ere kasik  
ez da irixten millara.

Nolakoa dan garbi esaten  
bertso batzutan zailla da.

**2** Sei kilometro daude Ernani  
erriburutik onuntza.

Giro ortatik gure auzora  
ematen da aldakuntza.

Euskeraz azi, euskeraz ezi,  
euskeraz bizi ta bultza.

Emen guztiok euskera degu  
gure lenengo izkuntza.

**3** Paraje auen giro ederra  
noa azpimarratzera.

Diruarekin ere ordaintzen  
ez dana bai degu bera.

Gure auzoko mendietara  
edo ta ibai ertzera,  
kale zuloatik etortzen dira  
arnas gozoa artzera.

**4** Abesbatza bat ere badegu  
"Ozenki" izen duana.

Oiek birrikak garbi dauzkate  
eta eztarri leguna.

Dabiltzan lekun ez da faltako  
doñu ta alaitasuna.

Erririk-erri kantari dabiltz  
emengo freskotasuna.

**5** Balkoi batetik bestera edo  
zabalduta eta leioak.

Batek puntua jarri, besteak  
gero erantzun iaioak.

Garai batean ola egiten  
omen zituzten saioak.

Bertsolariak asko izan dira  
baillara ontan jaioak.

**6** "Txabolategi", "Artzai txikia",  
eta "Txirrita" aundia,

gaur zorionez bizirik degun  
Paulo "Ernani txikia"...

Geiágo ere talde aundi bat  
prestu eta egokia,

bañan guztiak aipatuzeko  
ez daukat naiko tokia.

**7** Gaur bertsolari gazterik ez da  
orrek nauka arritua.

Zaletasuna ordea dago  
berriz indarberritua.

Arbola zaarra ez dagoenez  
oraindik igartua,

orrek usterik gutxienean  
eman lezake frutua.

**8** Bertsotarako beti izan da  
zaletasun bat beroa,

naiz eta orain ezin dan esan  
zer izango dan geroa.

Gaztetan ala ezagutu ta  
ala nai det zartzarora.

Beti olaxe izan dedilla  
URUMEAKO GIROA.